

Hitzontzi

Berunezko soldadutxoa

(Bi ahotsetan emana)

HANS CHRISTIAN ANDERSEN

(Ipuin hau, Emilio Arangonek egindako musikarekin batera –Euskadiko Orkestaren eskutik– Iban Garatek eta Judith Mariezkurrenak irakurri zuten, Patxi Zubizarretak prestatutako moldaketan oinarriturik.)



SOLDADUA: Behin batez, berunezko pitxar bat izan omen ginen. Hala esan ziguten, behintzat. Eta berunezko pitxar hura urturik, berunezko hogeita bost soldadutxo sortu gintuztela. Gu geu, alegia. Hala bada, besoa fusilean, begirada aurrealdean tinko finkatua, uniforme gorri-urdinarekin sortu gintuzten.

DANTZARIA: Egun batez, bere urtegunean, Christianek berunezko hogeita bost soldadutxo jaso zituen opari. Haren osaba pozaren pozez sartu zen egongelara. «Non dago nire besoetako kuttuna?», esan zuen, eta mahai gainean utzi zuen paper liluragarri estalitako oparia. Mutikoak kutxaren estalkia jaso, eta, soldadutxoak ikustearekin batera, txalo artean esan zuen:



SOLDADUA: «Beruneko soldadutxoak!», eta haietxek izan ziren soldaduok mundu honetan entzun genituen lehen hitzak. Horren ostean, Christianek lerro-lerroan ipini gintuen mahai gainean.

DANTZARIA: Soldadutxoak elkarren berdin-berdinak ziren, baina bazen hanka bakarra zuen bat. Seguruenik, pitxarraren galdaketan berun faltan ibiliko ziren eta bera azkena izan... Dena dela, beste hankabikoak bezain irmo eta tente zegoen bere hanka bakarraren gainean.

SOLDADUA: Gure mahai berean beste jostailu asko zegoen, baina nabarmenena paperezko jauregi miresgarri bat zen. Ezin hobeki ebakia, banderak lau haizetara teilatuaren gorenean. Gainera, leihoetatatik begiraturik, barneko aretoak ere ikus zitezkeen.

DANTZARIA: Ni jauregiaren aurrealdean nengoan, ispilutxo batekin eginga zegoen zingiraren ondoan. Eta aurrena han igerian zebiltzan

argizarizko zisneei begiratu nien, eta hurrena, lotsaren lotsaz, soldadutxo hankabakarrari.

SOLDADUA: Jauregia zinez ikusgarria zen, baina are ikusgarriagoa iruditu zitzaidan ateetan zegoen dantzari ttipia. Jauregitik urrundu nahi zuela ematen zuen, eta, jauzika, hurbildu nahian zebilela. Bera ere paper ebakiz sortua zen, baina hari argizko gonatxo bat zeukan eta xingola nimitño urdin bat sorbalda gainean, txal baten gisakoa. Eta, haren erdian, bere aurpegitxoaren tamainakoa, arrosa distiratsu bat zeukan apaingarri.

DANTZARIA: Dantzan ari nintzen, pozaren pozez, baina soldadutxoa niri begira topatu nuen. Ai, oi, ei! Bihotza punpeka hasi zitzaidan eta, lotsaren lotsaz, dantzatzeari utzi nion. Hanka bat altxaturik utzi behar izan nuen, airean, gonak ozta-ozta estalia.

SOLDADUA: Zazpi ahaleginak egin nituen, baina ezin bada dantzariari hanka ikusi. Behar-bada bera ere hankabakarra izango zen. Orduan bururatu zitzaidan emakume aproposa izan zitekeela niretzat. Baina berehala ohartu nintzen alde ederra zegoela bere jauregiaren eta nire kartoizko kutxaren artean. «Zer mila sorgin», pentsatu nuen, «hala eta guztiz ere, pozik ezagutuko nuke».

DANTZARIA: Gauean, lotara joan aurretik, Christianek kutxan gorde zituen soldadutxo guztiak. Baina gauerdi inguruan jostailuak mugitzen hasi ziren, eta jostatzen. «Ikusi-makusi»-ka, «Jau-regirako gonbita»-ka edo «Pilota jaurtiketan».

SOLDADUA: Mutikoak kutxan gorde gintuen, baina ezin bada lorik egin. Tximista gorria! Jostailuak zalapartaka ari ziren, eta irriz karkailaka. Orduan, ez bat eta ez bi, kutxa gainera igo nintzen.

DANTZARIA: Soldadutxoak geldi-geldirik zeuden, baina, halako batean, hankabakarraren burua agertu zen kutxa gainean. Une hartantxe hamabiak jo zuten, dan, dan... Eta hamabiak jotzearekin batera, tabako ontzia berez zabaldu, eta, frixt!, iratxo bat agertu zen.

SOLDADUA: Jostailu guztiak jostaketan ari ziren, guztiak dantzaria izan ezik. Bera ere hanka bakarraren gainean zegoen eta, une batez, niri begira zegoela iruditu zitzaidan. «Berunezko soldadutxo!», esan zidan, ezustean, iratxo batek, bere malgukian bilin-boloka zebilela. «Berunezko soldadutxo, ez begiratu hirea ez denari», eta dantzari ttipia seinalatu zidan lotsagabe halakoak.

DANTZARIA: Ni lotsagorritu egin nintzen. Ezentzunarena egin nuen.

SOLDADUA: «Bihar gorriak eta beltzak ikusiko dituk!», esan zidan burlaizean, eta berriro ere tabako ontzian sartu zen.

DANTZARIA: Biharamunean, jaiki eta gero, Christianek berunezko soldadutxoa hartu, eta leiho bazterrean ipini zuen. Ezusterik ezusteean, haize bolada batek leihoa zabaldu, eta, ai, oi, ei!, soldadutxoa hirugarren solairutik kalera jausi zen.

SOLDADUA: Iratxoak arrazoia zuen: biharamunean, etxetik kalera amiltzen ari nintzela esnatu nintzen. Zazpi ahaleginak egin nituen buruz behera jausteko. Hala bada, espaloiaaren kontra talka egin nuenean, fusila bi adokinen artean sartua geratu zitzaidan.

DANTZARIA: Christian tximistotsean jaitsi zen kalera. Soldadutxoaren ondo-ondoan egon zen, baina, hura ikusi ez! Gutxienez soldadutxoak laguntza eskatu izan balu!

SOLDADUA: «Laguntza! Laguntza!» eska nezakeen mutikoa nire albora etorri zitzaidanean. Baina soldadu batek ezin bada laguntza eskatu. Eta mihia txuloan geratu nintzen.

DANTZARIA: Lanbroa. Euria. Zaparrada. Uholde unibertsala etorri zen. Eta urak gainezka egin zuen. Espaloiak estali zituen, errekek eta putzuak sortu.

SOLDADUA: Erorikoaren ondotik, berealdiko euri erauntsiak harrapatu ninduen. Tximista gorria! Baina noizbait ere hura amaitu, eta bi neska-mutiko inguratu zitzaizkidan.

DANTZARIA: «Hara! Berunezko soldadutxo bat! Hau bai jostailu ederra!», esan zuten.

SOLDADUA: Eta nirekin ongi jostatu ziren, ongi jostatu zirenez!



DANTZARIA: «Itsasontzi bat egin dezakegu, eta soldadutxoa munduan barrena bidali!», erantsi zuten.

SOLDADUA: Esan eta izan. Egunkari pape-rez egin zidaten itsasontzia, eta ni barnean ipini. Itsasontzia uretan pausatu zuten gero eta errekan behera abiatu nintzen, neska-mutikoak atzean nituela.

DANTZARIA: Gerora jakin nuenez, pape-rezko itsasontzia gora eta behera ibili zen, ur zurrunbiloetan, ur jauzietan nekez nabigatuz.

SOLDADUA: Gero eta nekezagoa zitzaidan zutik jarraitzea, baina nik zazpi ahaleginak egin nituen. Tente jarraitu beharra neukan, besoa fusi-lean, begirada aurrealdean tinko finkatua.

DANTZARIA: Antza, itsasontzia estolderie-tako tuneletan barrena amildu zen, iluntasunik ilunenean.



SOLDADUA: «Noraino helduko ote naiz?», pentsatu nuen kezkatu-rik. Iratxoa da benetako erruduna! Tximista gorria! Ai, gutxienez nire alboan dantzari ttipia balego! Haren argitasunak nire iluntasun guztiak uxatuko lituzke!

DANTZARIA: «Geldi hor! Nor zara?», oi-hu egin zuen zubi baten azpian zegoen arratoi batek. «Ba al daukazu pasaportetik? Erakutsidazu!».

SOLDADUA: Baina ni mihia txuloan egon nintzen eta indartsuago heldu nion fusilari. Eta itsasontziak aurrera egin zuen, ez irauliko bai irauliko, eta arratoia nire atzetik zetorren.

DANTZARIA: —Geldi ezazue! Gelditu! Ez dit pasaportea erakutsi! Ez du zerga ordaindu! Ezin du aurrera jarraitu!

SOLDADUA: Baina aurrera egin nuen. Eta, gutxien ustean, zubiaren amaiera aldean, halako argitasun izpi bat bistatu nuen. Baina, aldi be-rean, izugarritzko burrunba eta zalaparta entzun nituen, eta izularritu egin nintzen. Tximista gor-ria! Estolderia hantxe amaitzen zen, ur jauzirik beldurgarrienean...

DANTZARIA: Antza, itsasontziak hondoa jo zuen, baina handik gutxira berriro ere irten zen lur azalera. Hala ere, papera busti-bustirik zeukan eta ur maila soldadutxoaren lepo aldera heltzen zen.

SOLDADUA: Ura lepotik gora zetorkidala, dantzari xarmantaz oroitu nintzen. Zorigaitzez, ez nuen berriro ikusiko.

DANTZARIA: Itsasontziaren papera txiki-txiki egin zen eta soldadutxoa uretara jausi zen. Baina, ezusterik ezusteenean, animaleko arrain batek, grauska!, irentsi egin zuen.

SOLDADUA: Une batetik bestera, haragizko barrunbe heze batean agertu nintzen. Hura ere zartaginaren ipurdia baino beltzago zegoen, baina, ni, zer mila sorgin, artean bizirik nengoen.

DANTZARIA: Antza, arrainaren barnean ere, soldadutxoak tente jarraitu zuen, besoa fusilean, begirada iluntasunean tinko finkatua.

SOLDADUA: Seguruenik arrain baten sabelean egongo nintzela pentsatu nuen. Edozer izanik ere, mugimendu zakarrak egiten zituen eta hara-honaka zebilen, baina noizbait ere lasaitu egin zen.

DANTZARIA: «Berunezko soldadutxoa!». Oihua sukaldetik etorri zen. Antza, arraina sarean harrapatu zuten eta gure sukaldariak merkatuan erosi. Eta sukaldariak arraina labana handi batez erdibitu zuelarik, ai, oi, ei, hantxe agertu zen.

SOLDADUA: «Berunezko soldadutxoa!», hau da, ni neu! Eta, ez bat eta ez bi, sukaldariak egongelara eraman ninduen. Arrain baten sabelean bidaiatzen ibilitako gizontxoa nintzen. Bitxia. Irrigarria.

DANTZARIA: Nik pozaren pozez ikusi nuen berriro gurean. Soldadutxoak begirada altxatu, eta aurrena jostailuetara zuzendu zuen. Hurrena, lotsaren lotsaz, niri begiratu zidan, eta, niri begiratzearekin batera, bihotza punpeka hasi zitzaidan.

SOLDADUA: Begirada altxatu, eta berriro ikusi nuen nire begien aurrean. Tente, lerdan. Tximista gorria! Negargura etorri zitzaidan, negargura bortitza. Baina berunezko soldadutxo batek ezin bada berunezko malkorik egin. Eta, mihia txuloan, dantzari ttipiak zer esango geratu nintzen. Hari begirik kendu gabe.



DANTZARIA: Baina, ezusterik ezusteanean, Christianen anaia batek soldadutxoa hartu, eta, zasta, sutara jaurti ez zuen ba! Ai, oi, ei eta ai, oi, ei! Sua txinpartaka hasi zen eta iratxo erruduna irriz karkailaka...

SOLDADUA: Dantzari ttipiak ez zuen ezer esaterik izan. Beharbada oihu egingo zuen haur batek sutara jaurti ninduenean, baina nik ez nuen ezer entzuterik izan. Argitasuna, berotasuna, jasanezinak zitzaizkidan. Azken begirada luzatu nahi izan nion dantzari ttipiari. Urtzen ari nintzen, baina tente jarraitu beharra neukan. Tente... Nireak egin zuen.

DANTZARIA: Begiratu egin zidan. Nik ere begiratu egin nion. Baina, ezusterik ezusteanean berriro ere, atea zabaldu, eta haize bolada batek, tximeleta baten gisara, sutara hegaldarazi ninduen. Berunezko soldadutxoaren ondo-ondoan pausatu nintzen, haren ondoan kiskali. Nireak egin zuen.

SOLDADUA: Suak urtu egin ninduen. Berunezko ore trinko bat besterik ez nintzen.

DANTZARIA: Suak kiskali egin ninduen. Hauts apur bat baino ez nintzen.

SOLDADUA: Biharamunean, garbitzailea etorri zen beheko sua garbitzera.

DANTZARIA: Eta garbaitzaileak zerbait harrigarria topatu zuen.

SOLDADUA: Soldadutxoa eta dantzariñoa,

DANTZARIA: berun eta hauts, bat eginak ginen.

SOLDADUA & DANTZARIA:Gure hondakinek bihotz ttipi bat osatua zuten.

Bihotz ttipi bat